



Argazkia: Daniel Lobo (CC-BY)

Birgaitzea eraikinei loturik egon den kontzeptua izan da. Ohituak gaude eraikinen berriztatze eta berregokitzeetara. Historikoki, hainbat arrazoiengatik berri eta birgaitu dira eraikinak. Esate baterako, moldatuak izan dira garaian garaiko estilo eta moldeetara. Jakinak dira hainbat elizak historian zehar jasan dituzten birmoldatzeak. Baina badira eraikinak birgaitzeko beste aukera sinpleago eta apalago batzuk ere. Adibidez, etxebizitza ugari desegokiak bihurtzen dira hasierarako pentsatuak ziren familia unitatearentzat. Ez da batere arraroa etxebizitza handien segregazioa. Izan ere, merkatuak eskatzen duen etxebizitza mota asetzeko neurri bat besterik ez da. Bestalde, eraikinen irisgarritasuna hobetzea eta egokitzea azkenaldian ugari egiten ari den lana da. Igogailurik ez duten etxeek nola edo hala haren beharra dute, gizartearen atal handi batentzat erabilgaitzak bihurtu baitira etxadi hauek. Eta azkenik, baliabide energetikoen galerak energia aurreztera behartzen gaitu. Eraikinen isolamendu-beharra energiaren kostuekin batera esponenzialki igoko da.

Birgaitzea balio positiboekin lotu dugula esan daiteke. Izan ere, birgaitzeak ondarea konpontzeko, etxeak berrerabiltzeko, patologiak konpontzeko eta eraikinak egokitzeko balio du, besteak beste. Baina birgaitze desegoki batek, luzera, eraikinari min handia egin diezaioke. Tamalez, berritze kaxkar ugari dauzkagu inguruotan eta hori ekiditeko ondo prestaturiko teknikari zein langileak behar dira. Irizpide egokidun jendea, fi nean.

Gaur egun, birgaitzeak, eraikinetan ez ezik, baditu beste aplikazio batzuk ere. Gure lurralde zartatuko hainbat puntutan, ez aurrera ez atzera dabilzan ingurunea berreskuratzeko hainbat proiektu esaterako. EAEko lurzoruaren % 9 hiritartua edo azpiegituz estalia dago, Europako batez bestekoaren bikoitza. Zorua birziklutzer behartuta gaude hortaz. Gure inguruneari eragindako txikizioari buelta eman beharko diogu, ingurumen jasangarriagoa izateko. Hori loturik, nekazaritza-guneak berreskuratzeko politikak martxan jarri beharko dira, petrolio eta beste energia-iturriak agortu orduko, elikagai osasuntsuak gertu izateko beharra izango dugu eta.

Ingurumeneko lehengaiak eta baliabideak mugatuak diren neurrian, gure inguruko espazioak eta eremuak berrerabiltzea eta berregokitzea bultzatu beharko litzateke. Hori egin ezean, lehengaien eta lurraldearen kontsumo gehiegizkoaren kalteak ordainduko ditugu.

Zaharra berritzeko orduan, beraz, dimentsio hauek guztiak kontuan hartu beharko genituzke.

